

Año LII. urtea

130 - 2020

Uztaila-abendua

Julio-diciembre



# FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

**Ama itzultzailea memorien  
transmisio-bideetan:  
*Martutene* eleberriaren  
irakurketa bat**

Miren IBARLUZEA, Izaro ARROITA

# Ama itzultzailea memorien transmisio-bideetan: *Martutene* eleberriaren irakurketa bat

---

Madre y traductora en los senderos de la memoria: una lectura de la novela *Martutene*

---

Mother and translator in the paths of the memory: a reading of the novel *Martutene*

Miren IBARLUZEA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

miren.ibarluzea@ehu.eus

<https://orcid.org/0000-0002-2377-2922>

Izaro ARROITA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

izaro.arroita@ehu.eus

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv.130.5>

Eskerrik asko Amaia Serrano, Ibai Atutxa eta Iratxe Retolazari egindako oharrengatik.

Lan hau MHLI (IT1047-16 Eusko Jaurlaritza) ikertaldearen US17/10 (UPV/EHU) eta FFI2017-84342-P (MI-NECO) ikerketa-proiektuen parte da.

Jasotze data: 2020/08/04. Behin-behineko onartze data: 2020/10/05. Behin betiko onartze data: 2020/10/22.

## LABURPENA

Saizarbitoriaren *Martutene* (2012) eleberriko Julia protagonistaren bitartekaritza-rola dugu aztergai. Itzultzailea da, eta Martin bikotekide idazleari eta haren testuari leial izan beharrez sortzen zaizkion kezkei eta nekeei erreparatuko diegu. Zubi-lan horrekin bat interpretatuko dugu Juliak familian egiten duen bitartekaritza: memorien transmisioari buruz gogoetatzan du, semea bitarteko. Kasu horretan ere, iraganarekiko leialtasuna eta horrek ondorengoei eragin diezaiekeen zama izango ditu Juliak gogoetagai. Ondorioztatuko dugu bitartekari leialaren irudia problematizatuaz, ezabatzeak eta birkokatzeak proposatzen dituela ama itzultzaileak transmisio-bide gisa, ikuspegi kritiko batetik.

**Gako hitzak:** Ramon Saizarbitoria; euskal literatura; memoria-ikasketak; itzulpen-ikasketak.

## RESUMEN

En el presente trabajo se analiza el papel mediador de Julia, protagonista de la novela *Martutene* (2012) de Ramon Saizarbitoria. Julia es traductora y visibilizaremos aquí las inquietudes y fatigas que le hace sentir la necesidad de ser fiel al texto y al autor que traduce, su compañero sentimental Martin. Interpretaremos, asimismo, la mediación que realiza Julia en el seno familiar, en tanto en cuanto reflexiona sobre la transmisión de la memoria con respecto a su hijo. También en este caso Julia se preocupa por la lealtad al pasado, y reflexiona sobre la carga que todo ello pueda suponer a los descendientes. Concluiremos que, problematizando la imagen del mediador fiel y desde un punto de vista crítico, la madre traductora propone omisiones y reposicionamientos como vías de transmisión.

**Palabras clave:** Ramon Saizarbitoria; literatura vasca; estudios de la memoria; estudios de traducción.

## ABSTRACT

This paper analyses the mediating role of Julia, one of the main characters in Ramon Saizarbitoria's novel *Martutene* (2012). Julia is a translator and we will make visible here her concerns and fatigues as she feels the need to be faithful to the text and the author she is translating, his sentimental companion Martin. We will also interpret Julia's mediation within her family, as far as she reflects on the transmission of the memory to his son. Here again, Julia is concerned with the loyalty to the past, and thinks about the burden this may place on descendants. We will conclude that, by problematizing the image of the faithful mediator and from a critical point of view, the mother and translator proposes omissions and repositioning as ways of transmission.

**Keywords:** Ramon Saizarbitoria; Basque literature; memory studies; translation studies.

1. SARRERA. 2. EMAKUMEAREN TRANSMISIO-ROLA IRUDITERIA ABERTZALEAN. 3. EMAKUME ITZULTZAILEA FIKZIOAN. 4. JULIA, HIZKUNTZEN ETA BELAUNALDIEN ARTEKO BITARTEKARI (DES)LEIALA? 5. ONDORIOAK. 6. ERREFERENTZIAK.

## 1. SARRERA

Lan honetan *Martuteneren* (Saizarbitoria, 2012) alderdi jakin bat aztertuko badugu ere, garrantzitsua iruditzen zaigu azpimarratzea hamaika ertz dituen obra monumental dela; euskal literaturak eman duen lanik mardulenetakoa eta gizarte eta garai jakin bat testuratzeko saiorik bikainenetakoa. Kritikari gehienek bat egin dute nobelaren aberastasuna nabarmentzean. Kortazarrek (2012, linean) dioenez, «oroipenaren nobela» da, Euskal Herriko historia testuratzen duen neurrian; baina bada egilearen obraren *summum* bat ere, egilearen orain arteko lanak biltzen dituelako. Aldekoaren (2013, 21. or.) arabera, *Hamaika pausorekin* hasitako zikloa ixten du nobela honek, eta mugarri gisa har dezakegu, beraz, Saizarbitoraren nobelagintzan, eta oro har, euskal narratiba garaikidean. Gabilondorentzat, berriz, nobela «epokala» da; XX. mende luzeko euskal subjektu burges abertzalearen oroitzapen kateatuak biltzen dituen kronika (Gabilondo, 2013, 92. or.).

Funtsean, esan genezake Saizarbitoriaren beste lan batzuetan bezala, bikoteen arteko gatazkak eta Euskal Herriko gatazka historiko politikoak direla literaturagai nobela honetan ere<sup>1</sup>. Bi plano nagusitan dago zatituta, eta bakoitzean, asperdurak, erruak eta aspalditik datozen arazoek erasandako bikote heldu bat da protagonista: kapitulu bakoitietan, Martin idazlea eta Julia itzultzailea; bikoitietan, berriz, Iñaki Abaitua eta Pilar medikuak. Lynn soziologo estatubatuar gaztearen etorrerak irauli egingo du bikote bien bizimodua.

1 Gaian sakontzeko, ikusi Otaegi & Otsagabia (2019).

Saizarbitoriaren aurreko nobeletatik ezagunak zaizkigun Iñaki Abaitua eta Julia-rengan jartzen da fokua bereziki hausnarketa egiteko erruduntasun indibidual nahiz kolektiboaz, gerraz, gatazkaz edota nazionalismoaz, besteak beste. Biak dira belau-naldi-arteko bitartekariak; Julia nabarmenduko dugu, baina, rol transmisorea duen protagonista gisa, batez ere, pertsonaiarik aberats eta konplexuena delako. Zigor semearekin eta bere amarekin, Zigorren amonarekin bizi da Julia. Abertzalea da bere familia guztia, herentzia abertzalea jaso du etxean, eta horri buruzko gogoeta etengabea egingo du nobelan: alde batetik, gerrako gudarien ondarearen transmisioari buruzko gogoeta; zer-nola helarazi beharko liokeen Zigorri. Bestetik, Zigorren aita zenduaren herentziaren inguruko arazoa nabarmentzen da; gerrako izena Zigor zuen etakidea zen hura, eta semearentzako hil ondoko gutun bat utzia zion Juliari. Herentzia hori semeari transmititu edo ez erabaki beharko du honek, eta dilema handia sortuko zaio:

«Aberriaren alde borrokatu naiz, eta zu libreago izan zaitezene». Era horretako mezuak, heriotzaz haratagotik helduak, semearen gogoia baldintzatzeko eta zama ikaragarria bilakatzeko eragina izan lezaketenak. [...] Zigorren azken borondatea bilakatu den hori bete beharrak loa kendu dio gau frankotan (Saizarbitoria, 2012, 133. or.).

Bestalde, Julia hizkuntza batetik besterako transmisio-lanak egiten dituen emakumea da, Martinen etxean bertan *Bihotzean min dut* lana itzultzen ari dena, administrazio-itzulpen-lanetatik eszedentzia hartuta. Itzulpengintzari eta hizkuntzen tratatari buruzko gogoetak ere txertatzen dira, beraz (maiz *Montauk* [1975] eleberriarren itzulpena aitzakia hartuta, Frisch-en obra omentzen baitu *Martutenek*, etengabeko aipu eta erreferentzien bidez). Juliaren ametsa, baina, inorentzat itzuli ordez berak hautatutako itzulgaiei ekin eta idaztea da: «Horregatik, itzuli bitartean bere ahots propioa isildu behar du. Itzuli baino nahiago luke itzultzen ari denaz idatzi. Nahi luke berari eta bera bezalakoei gertatu zaienaren istorioa idatzi» (Saizarbitoria, 2012, 284. or.).

Saizarbitoriaren hitzetan, «askotan itzultzailearen arazorik handiena iruditzen zait dela testuari fidela izan beharra, fideltasun askotan alferrikakoa; nik hori argi ikusten dut, eta adibideak ematen ditut *Martutenen*» (Saizarbitoria, 2015). Bada transmisio-lan horretan Juliari sortzen zaizkion zalantzak agertzen dira *Martutene* eleberriko orrialdeetan; eta itzulpenaren fideltasunaren auzia loturik agertzen da Euskal Herria eta euskal kultura kanpora nahiz belau-naldi gazteagoei azaldu beharrak eragindako transmisio-arazoekin, batez ere Juliak Zigor semearekin eta Lynnekin dituen elkarriketetan ikus dezakegun bezala. Hala, errepresentazioaren mugak nabarmentzen dira, itzulezintasuna izanik eleberrian etengabe errepikatzen den auzietako bat: «Ez daki nola itzuliko lukeen. Jaka ile luzedun zuria nahiago peluxeakoa baino, edonola ere» (Saizarbitoria, 2012, 335. or.) pasartean ikusten denez, itzulpena etengabeko zalantza-egoera bat da, eta itzulezintasuna da itzultzailearen beldur etengabeetako bat, ezen askotan ezin da itzulpen-soluziorik aurkitu: «Izenik gabe geratu den sasipoeta gaztearekin euskaratu beharra egokitu zitzaion tailerrean, eta ezin izan zuten beti gaizki itzultzen den sympathyrentzat hitz egokirik aurkitu. In the primal sympathy» (Saizarbitoria, 2012, 651. or.).

Iragan gatazkatsua zen testuaren hizkuntza batetik besterako transmisioak, eta leial izan beharrak, eleberriko pertsonaiengan eragiten dituen ezinegonak lotu eta gaiaren errepresentazioari buruzko irakurketa bat egin nahian, batetik, tradizio aber-tzalean nagusitu izan den iruditeriari<sup>2</sup> erreparatuta, emakumearen transmisio-rolaren nolakotasunak gogoratuko ditugu eta, bestetik, emakume itzultzailearen bitartekari-tzari buruzko iruditeria ere ekarriko dugu. Ondoren, iruditeria hori guztiori *Martutene* eleberriko Juliarengan islatzen denez eztabaidatuko dugu, Julia hizkuntzen eta belau-naldien arteko bitartekaria den aldetik. Azkenik, emakume itzultzaile bitartekariaren iruditeriari buruzko gogoeta eta Julia pertsonaiaren nolakotasunaren eztabaidatik on-dorioztatutako ideien berri emango dugu.

## 2. EMAKUMEAREN TRANSMISIO-ROLA IRUDITERIA ABERTZALEAN

Jakina da ohikoa dela hizkuntza eta kultura ezberdinetan genero-asoziazioak egitea aberria arbasoen lur gisa irudikatzean. Gaztelaniazko *patria*, esaterako, aitaren herria litzateke. Blickle-k (2002) azaltzen duenez, berriz, alemanezko *Heimat* genero femeni-noari loturik ageri da azken 200 urteotako errepresentazioetan, eta ohikoa da amaren lur edo umetoki gisa ere agertzea. Euskal kasuari dagokionez, Sabino Aranek sorturiko *aberri* kontzeptuaren oinarrian arbasoak daude, *aba* edo asaben herria baita, zehazki, aberria. Interesgarria da, baina, ohartzea Aranek amaren irudiarekin ere lotzen duela aberria testu batzuetan. Halaxe azaltzen du Pagolak (2005) Sabino Aranaren neologis-moei buruzko ikerlanean:

**Aberri**, patria (1896). De **aba** 'antepasado' y **erri** 'pueblo, nación'. «[Neol.] Aberri / [origen] aba-erri / [significado] asaben errija / [en fr.] *patrie* / [en esp.] *patria*» 1897a, 76 (1061). Lo emplea con frecuencia [...] Antes, en su lugar, emplea *Erri* [...]. En 1895, alternando con *Erri*, aparece por primera vez *Erri(-)Ama* [...]. Sorprende que AG, ene-migo de tomar nada prestado de lenguas vecinas, recurra a ese procedimiento en una lengua en la que los nombres no tienen género. Al entrar en circulación *aberri*, *Erri-Ama* deja de ser utilizado, pero el calco permanece: *Aberri-Ama*, / *Artru gogo onez* / *Malko ederrok* 1904i (2412) (Pagola, 2005, 5. or.).

Arestik (2014) azaltzen duenez, baina, *Aberri-Ama* irudiaren garrantzia aldakorra izan da historian, besteak beste, mugimendu abertzalearen genero-ikuspegia aldatzen joan zelako XIX. mende amaieratik Gerra Zibilaren hasierara arte. Aldatu egin da, ha-laber, emakumeak aberriaren baitan izandako partaidetzaren eta transmisioaren iru-ditegia. Arestiren (2014) arabera, abertzaletasunak baztertu egin zituen emakumeak bere hastapenetan; 1920-1930eko hamarkadetan nabarmendu zen emakume abertzale aktibisten rola (Emakume Abertzale Batzako kideei esker, bereziki), eta orduan zabaldu zen, batez ere, *Aberri-Ama* sinbolo gisa: «La imagen de la 'madre patria' no fue ope-rativa políticamente en el primer nacionalismo vasco como lo sería posteriormente y, a

2 Kontuan izan behar den arren, noski, abertzaletasuna mugimendu heterogeneoa dela, eta aldatu egin dela, gainera, historian zehar.

diferencia también de lo que sucedería después, las mujeres vieron totalmente negada su participación en el movimiento, incluso desde su condición de madres» (Aresti, 2014, 283. or.).

Familiak eta leinuak Aranaren diskurtso abertzalean duten garrantziak erraztu egin zuen 1920 eta 1930eko hamarkadetan emakumeei paper politiko bat aitortzea, batez ere, abertzaletasunaren alderdi emozionalari lotuta eta amatasunari, amaren rolari atxikita: «En el terreno simbólico, *la mujer, la madre*, en singular genérico, se convirtió así en representación de la patria, en la patria misma» (Aresti, 2014, 298. or.). Hala, aberriaren iraupena, abertzaletasunaren belaunaldiz belaunaldikako transmisioa bermatuko lukete emakumeek, gerra garaian ere semeak aberriaren aldeko sakrifizioan ematen dituzten ama sendo, neurritsu eta zorrotzek (Aresti, 2014, 302-305. or.). Antropologiaren esparrutik ere, abertzaletasunak emakume-amei lotutako sinbolismoari eman izan dion garrantzia nabarmendu da; ikuspegi abertzaleetan emakumeek izan duten rol transmisore eta sozializatailea: «la mujer como símbolo de la patria, la centralidad de la mujer madre, la mujer responsable del cuidado y bastión de fortaleza que emana de su interior» (Del Valle, 1999, 39. or.).

1980ko hamarkadaz geroztik abertzaletasunaren azterketari generoaren ikuspegia gehitu dioten ikerlanek zalantzan jarri izan dituzte sinbolo eta mito horietako batzuk (matriarkatuarena, adibidez). Del Vallek (1999, 38. or.) dioenez, sektore abertzale ezberdinek ez dituzte kritika horiek ondo hartu, besteak beste, apurtu edo zartatu egiten dutelako emakumearen gaineko ikuspegi koherente eta bateratua, eta, gainera, ezaugarri horietako batzuk bereizgarriak ere izan daitezkeelako abertzaletasunarentzat, euskal matriarkatua, kasu.

Literaturaren esparruan ere aberriari lotutako emakume-amaren irudikapenak iraun egin duela ikus dezakegu XX. mende bukaerara arte. Hala ere, pixkanaka, euskal literatura irudi hori deseraikitzen hasi dela azaltzen du Alvarez-Uriak (2012):

Errealitatean bezala fikzioan ere irudikatu izan da emakumeen gorputza seme-alaba emaile edo objektu sexual pasibo bezala. Euskal literatura garaikidean pisu handia izan du urteetan zehar euskal nazionalismoak ezarritako emakume irudi idealak: ama eta etxekoandre abertzalearena, hain zuzen. Honi gehitu behar dizkiogu erlijio kristauak gizonen menpeko izatera, gorputza ezkutatzera eta bere desioei muzin egitera behartu dituela eta diskurtso mediko-zientifikoak euren gorputza zikin eta gaixo ikustera ohitu dituela.

Joseba Gabilondok (2010) dio euskal emakumeek aipatutako ama (kastratzailea)-ren irudia bere egiten ez badute euskal naziotik deserriratu egiten dituztela eta horren ondorioz subjektu postnazional bilakatzen direla (euskal lesbiana, gay eta *queerrekin* batera). Hala ere ahots subalternoak (Spivak 1993) hizketan hasi dira eta buruaren azpian gorputza direla deskubritu dute. Ispiluaren aurrean jarri eta begiratuak izatetik begiratzera pasatu dira, euren izaeraren jabe eginez, kontzientzia hartuz, jasotako diskurtso eta errepresentazioak deseraikiz (Alvarez-Uria, 2012, 91-92. or.).

Ildo beretik azaltzen du Olaziregik, euskal imajinario abertzalean nagusitu den emakumearen irudiak literaturan iraun egin duen arren, lan batzuek rol horiek zalantzan jarri dituztela. Halaxe dio emakumezko idazleen genero ikuspegia aztertzean, Arantxa Urretabizkaiaren *Koaderno gorria* (1998) nobelaren harira:

*Koaderno gorria* proposes, in lyrical prose of great intensity, a deep reflection on motherhood and Nation, or to put it more concretely, on the impossibility of combining political militancy with motherhood. Because the novel points toward a reconstruction of the genre within Basque nationalism, a nationalism that since its inception at the hands of Sabino Arana designed the role women ought to have in it: the role of a selfless mother who raises her children and teaches them the Basque language and the Catholic faith. The main character in *Koaderno gorria* is a member of ETA, and therefore is far removed from Arana's traditional nationalism, rebelling against the role traditionally assigned to her by Basque nationalism (Olaziregi, 2012, 178. or.)<sup>3</sup>.

Ikus dezakegunez, euskal literaturan badira lanak herentzia abertzalea, oro har, eta, zehazkiago, emakumeari esleitu zaizkion rolak zalantzan jarri dituztenak. Kontuan izan behar da, esan bezala, abertzaletasunaren eragina erabakigarria izan zela literaturan XX. mendearen lehen erdira arte, eta nazio identitatearen eraikuntzara bideratutako lanak sortu zirela, batez ere (Olaziregi, 2012, 143-144, 147. or.). Gaur egungo literaturan, ordea, eklektikotasuna nabarmentzen du Olaziregik (2012), ikuspegi eta tipologia aniztasuna.

Bada, hain zuzen ere, nabarmentzen den joeretako bat, gure iragan hurbilari modu kritikoa erreparatzea da, eta herentzia abertzaleaz eta beronen transmisioaz hausnarketa egitea. Bereziki adierazgarria da ildo horretan Ramon Saizarbitoriaren obra, besteak beste, xehetasun eta ñabarduren bidez hausnarketa horretan sakonera jotzeko erakutsi duen maisutasunagatik.

Zeregin horretan, gizarte baten memoria kulturala (Assmann, 1995), bere mitoak eta sinboloak problematizatzean, literatura gizarte-adierazpide pribilegiatua dela uste dugu. Izan ere, beste diskurtso mota batzuekin alderatuta, literatur testuen konplexutasuna nabarmentzen du zenbait ikerlarik; diskurtso ezberdinak, osagarriak, anbiguoak, elkarren aurkakoak adierazteko gaitasuna du literaturak, eta konplexutasun horretatik datorkio, hain zuzen ere, bere indarra eta potentzial afektiboa (Erlil, 2011, 151. or.). Literatura giza kontzientziaren alderdi emozionaletik gertuago dagoela esan genezake, beraz, Resinaren hitzak geure eginaz:

3 Olaziregik aipatzen duen *Koaderno gorria* laneko ama ez da dagoeneko etxekoandre eta, militantziari emana, ez du bere haurren zaintza egin (amatasunaren edo militantzia politikoaren arteko hautua egin behar izan du). Baina, interesgarria da ohartzea hemen ere, lehenagoko iruditegiarekin bat, emakumearen rol transmisoreak pisu handia duela, eta, besteak beste, Retolaza eta Serranok gogorarazten dutenez, eleberriko ama eta amama pertsonaien lanbideetan ere irudikatzen da transmisioaren erantzukizuna: «Ez da halabeharra bi pertsonaia nagusiek halako ofizioak izatea (abokatua eta irakaslea), konpromiso politikoarekin batera gizartearekiko ardura berezia eskatzen duten lanak dituzte: kultur transmisioa ez ezik, heziketaren eta eskubideak betetzearen erantzukizuna ere bere gain hartzen dute» (2012, 714. or.). Bada, hemen aztergai dugun *Martutene* eleberriko Juliaren kasuan ere lanbidearekin erabat lotuta dago transmisioaren erantzukizuna.



Por tratar los hechos en bruto, con toda su ganga emocional, la literatura transmite, con mayor fidelidad que cualquier otro tipo de documentos, el espíritu de un tiempo suspendido en la memoria, esto es, las reverberaciones subjetivas de un pasado no cancelado, sin descartar la ambigüedad o las contradicciones, que suelen ser las primeras víctimas de la racionalización (Resina, 2011, 25. or.).

Kontraesanak agertuko zaizkigu *Martutene* eleberrian, hain zuzen ere, protagonistaren barne-gatazkak eta zalantzak, belaunaldi arteko eztabaidak, jasotako herentzia abertzalearekin zer egin, zer transmititu eta zer baztertu hausnartzerakoan. Zalantzak agertuko ditu protagonistak, halaber, hizkuntza batetik besterako itzulpen-lanean; beste literatura batzuetako fikziozko itzultzaileekin gertatzen den era berean, fidelitasunaz egingo du gogoeta, eta bere ahotsetik kontatzeko nahia nagusituko zaio, pixkanaka.

### 3. EMAKUME ITZULTZAILEA FIKZIOAN

Simenonik (2004, 24. or.) nabarmentzen du narrazio berrietan itzultzaileari funtzio berriak esleitzen zaizkiola, eta errealak zein mitikoak izan, itzultzaileek amets egiten dutela, negar egin, erail zein osatu. Funtsean, itzultzaileek euren erantzukizuna aldarrikatzen dute errepresentazioaren eszenan, eta lehenagoko itzultzaile ikusezinen aldean, gero eta agerikoagoak dira. Bada, hainbat kulturatan eta literaturatan gertatzen denarekin bat, fikziozko itzultzailea gero eta agerikoagoa da baita euskal literatura garaikidean ere, eta badirudi itzulpen-eremua bera ikusgai egiten ari den heinean eszenaratzen ari dela itzultzailea literatur pertsonaia gisa euskal letretan. Itzultzaileak fikziora eramán dituzten 1985etik 2012ra bitarteko hamaika lanetatik sei agertu ziren 2008-2012ko bost urteko tartean, eta horien artean dago *Martutene* (Ibarluzea, 2017).

Fikzionalizatu izan diren itzultzaileei dagokienez, errepikatu egiten dira haiekin lotutako zenbait rol eta ezaugarri (Siouda, 2012, 23. or.), eta paperezko itzultzaileek antzeko eszenaratzeak izaten dituzte. Laburbilduz, esan daiteke fikzioan agertu zaizkigun itzultzailearen antsietateak hauek direla: lanbidearekiko erantzun afektiboak, isolamendua edo bakartasuna, sustrairik eza, autoretza-onespen eta aintzatespen guraria, alderdi ekonomikoak eta lanarekiko obsesioa. Aurrekoei gehitzekoak dira Mihalachek (2005, 139-154. or.) zerrendatzen dituen itzultzaileen inguruko irudi eta estereotipoak: ideien kontaminatzailearena, itzultzaile terroristarena, itzultzaile antropofagoarena, mendeko zerbitzariarena, itzultzaile paranoiko eta obsesiboarena, exorzista edo mediumarena, autorearekin edo pertsonaiekin identifikatzen den itzultzailearena, lapurrarena, desleialarena, pobrearena, bidaiariarena, bere baitara biltzen denarena, inoren hitzak erreztatzen dituenarena, birsortzailearena. Itzultzailearen irudi horiek lotuta daude, batetik, gizartean itzultzaileari buruz zabal dabiltzan ideiekin eta, bestetik, idazle eta itzultzaileek itzulpenaren langintzarekiko duten jarrerarekin. Kaindlek (2014, 1-26. or.) *Transfiction* liburuari egindako hitzaurrean azaltzen duenez, Ost irakasleak gaika sailkatzen ditu fikziozko itzulpen eta itzultzaileen agerpenak, eta zazpi arlo tematiko bereizi: hizkuntzen unitatea eta aniztasuna; itzulpen intralinguistikoa; esanahiaren transferentzia itzulpenean; jatorrizkoaren eta itzulpenaren arteko harremana; traizioa eta leialtasuna; itzulpen-etika; itzulpena metafora gisa.

Ibarluzearen (2017) lanean ondorioztatzen denez, idazleen gaiak jorratzen direnean ageri dira batez ere itzultzaileak euskal fikzio garaikidean; eremu geografikoari dagokionez, gero eta gertuago ageri dira, kontatzen den ekintzan duten egitekoa gero eta zentralagoa da, eta itzultzaileen profesionalizazioa ere gero eta agerikoagoa da, gizartean gertatuarekin bat. Edonola ere, itzultzailearen ahulda-dea, hauskortasuna, ziurgabetasuna... ere ageriko irudia da (literatur eremuaren posizioari eta nazioartekotzean sortzen diren auziei, hizkuntzaren gizarte-egoerari, hizkuntzaren normatibizazioari, itzulpenaren beraren definizioari zein langintzarekiko atxikimenduari dagozkion zalantzak azaleratzen dira batez ere). Itzultzaileen izaera obsesiboa eta zalantzia agerraraztea, itzultzailearen isolamendurako eta iheserako joera, mugaldeko pertsonaia gisa irudikatzea, itzultzaileak maitale-aferekin lotzea, autoretza-nahia agerraraztea... motibo errepikakorrak dira. Edonola ere, desleialtasunari loturik, bada euskal fikzio garaikidean gertatzen den bira moduko bat, hemen nabarmentzeko modukoa: tradizioz traiziogilearen edo fidel-tasunik ezaren irudia itzultzailearekin lotu bada ere, Apalategiren «Urrezko Vespa» ipuinean (2010) itzultzaileak eta idazleak bata bestearen lekua hartzen dutenetik, badirudi idazlearekin lotzen dela desleialtasuna, eta hori ageri-agerikoa da Canoren *Twist* eleberrian eta aztergai dugun Saizarbitoriaren *Martutenen*. Bestela esanik, itzultzailearen «erantzukizuna» arindu egiten da, eta itzultzailea ez da idazlea baino «desleialagoa».

Bestalde, euskal literatura garaikidean agertutako itzultzaileen artean paretsu agertu badira ere emakumeak eta gizonezkoak (Ibarluzea, 2017), interesgarria da, lan honen helburuei loturik, emakume itzultzaileari fikzioan esleitu izan zaion iruditeriari eta rolari erreparatzea.

Bada, Sioudak (2012, 26-35. or.) emakume itzultzaileen agerpenak aztertzen ditu, eta emakume itzultzaileen errepresentaziorako irudi eta motiboak multzokatu: batetik, itzultzaileen eta autoreen harremani lotutako motiboak daude (autorearekiko harreman erotikoa, autorearekiko eta itzulpenarekiko harremana terapia gisa, autorearen eta itzultzailearen fusioa, askatasun-mendekotasun zein amodio-gorrotzko sentimenduak...). Bestetik, itzultzailearen bitartekaritzari lotutako motiboak (esaterako, emakume itzultzailea familia-bitartekari gisa edo emakume itzultzailea kulturen arteko bitartekari gisa). Sioudak, halaber, berak aztertutako zazpi agerpenetako emakume itzultzaileen dimentsio fisiko, psikologiko eta kognitiboak agerrarazten eta orokortzen ditu: emakume itzultzaileak biluzik agertzen dira, odolustu egiten dira, gaixo sentitzen dira, euren buruekiko estimu falta dute, angustia sentitzen dute, eta erru-sentimendua izaten dute, deprimituta egon ohi dira, eri eta ero, eta hala ikusten dituzte ingurukoek; halaber, itzulpena ogia lortzeko prozesutat dakusate, itzulpena metafora gisa darabilte, fidel-tasuna errespetatzen dute, jatorrizko testua helburu pertsonaletarako baliatzen dute. Funtsean, emakume itzultzaileak hauskorrak eta alienatuak dira, eta, Sioudak dioenez, gainera, emakume itzultzaileek baino ez dituzte izaten harremanak testuaren autoreekin; hots, ez da halakorik ageri gizon itzultzaileen fikziozko kasuetan (Siouda, 2012, 35-36. or.). Sioudak esandako horiek zein neurritan betetzen diren ikustea izango da datorren puntuko auzietako bat, eta Julia aztertuko dugu horretarako, emakume, ama eta itzultzaile gisa.

#### 4. JULIA, HIZKUNTZEN ETA BELAUNALDIEN ARTEKO BITARTEKARI (DES)LEIALA?

Hein batean, bat egiten du *Martutene* eleberriko Juliaren agerpenak 3. atalean azaldu dugun fikziozko itzultzailearen iruditegiarekin, eta itzulpena, oro har, ildo tematiko hauekin harremanetan ageri da: esanahiaren transferentzia, jatorrizkoaren eta itzulpenaren arteko harremana, eta traizioa eta leialtasuna. Era berean, Sioudak (2012) aipatzen dituen fikziozko emakume itzultzaileen motiboak ageri dira *Martutenen*: batetik, itzultzaileen eta autoreen harremanei lotuta, izan ere, bikote-harremana da hemen itzultzailearen eta idazlearen artekoa, eta sarri askotan egiten zaie erreferentzia bikotearen mendekotasun-askatasun eta maitasun-gorrotozko sentimenduei. Bestetik, bitartekaritza lotutako motiboak ageri dira, testuaren bitartekaritza dagozkionak zein familia-bitartekaritza dagozkionak, zehazki, memoria gatazkatsuen transmisore gisa egin beharreko loturari dagozkionak. Bada, ildo horretan, Zapiainen hitzetan esanik: «Iraganetik etorkizunera zer helarazi, gogoeta hori Juliak jorratzen du sarkorren; Julia da bitartekaria, transmisioaren protagonista: itzultzailea, bitartekaritza lanak egiten ditu hizkuntzen artean zein belaunaldien artean» (Zapiain, 2015, 212. or.). Ikusiko dugun moduan, bitartekaritza-lanetan ari dela erru-sentimendua eta fideltasuna bezalako auziak agerrarazten dira, eleberraren gako bihurtzen direnak.

Euskal literatura garaikideko fikziozko itzultzaileen agerpenaren bilakaerekin bat, idazle-gaiak agertzen direnean agertzen da Julia itzultzailearen figura, Martin idazlearenari lotuta. Bestalde, Euskal Herrian, Donostian, kokatzen du Saizarbitoriak pertsonaia itzultzailea, eta hortaz, lehenago herritik kanpo kokatu izan diren edo herritik ihes egin duten itzultzaileen aldean, pertsonaia gerturatu eta bertoko pertsonaia gisa irudikatzen du idazleak. Horrez gainera, eleberrian pertsonaia nagusietako bat da, eta egiteko eta zentralitate handia du. Euskal literaturako beste fikziozko itzultzaile batzuen kasuetan gertatu bezala, pertsonaiaren zalantzak eta ziurgabetasuna agerian geratzen dira: askotariko zalantzak agerrarazten ditu Juliak, bai itzulpen-jardunari loturik, bai memoriaren transmisioari loturik. Halaber, desleialtasunaren gaia da eleberriko gakoetako bat, eta, esan bezala, hainbat mailatan egiten zaio erreferentzia Juliaren kasuan: batetik, maitasun-aferekin lotzen da eta, bestetik, itzulpenarekin eta memoriaren eta gatazkaren transmisioarekin.

Bikote harremanei lotutako desleialtasunari gagozkiolarik, interesgarria da ohartzea, esaterako, nobelak aurrera egin ahala, agerian geratzen direla Juliaren eta Martinen arteko harremanean alde batera zein bestera izan diren desleialkeriak: Martinek euskal literaturari buruzko tesia egiten ari zen neska filologo batekin engainatu zuen Julia, eta honek Martin sasi-poeta gazte batekin. Emakumearena laido larrizat hartzen du gizonak, baina berak ez ditu bere abenturak onartu ere egiten. Ostera, Juliak bere fideltasun-eza onartu, barkamena eskatu eta Martinen etengabeko gaitzespenak pairatzen ditu. Lehenago aurreratutakoarekin bat, eta bikote-harremanak itzulpenaren irakurketa metaforiko gisa ulertuta, esan dezakegu itzultzaileak fideltasun-eza onartzen duen artean, idazleak gorde egiten duela.

Leialtasunaren aferaren agerpena itzulpen-prozesuarekin bat eginda dator sarri *Martutene* eleberrian; askotan, Max Frisch-en *Montauk* (1975) nobelaren itzulpenen

harira. Agerpen horietako bat aipatzearren, hona hemen pasarte bat, non kontatzen den itzulpen-auzi baten aurrean (*velluda chaqueta*-k ez du oso ondo ematen belarrira) jarrera ezberdina dutela Martinek eta Juliak:

Idazlearen iritzi izulpen arazoa gainditzeko modurik errazena Maxek edozein jaka mota eusten duela esatea omen litzateke. Larruzko jaka bat edo trikotazkoa, kirrinka egingo ez lukeen edozein motatakoa, idazleari ez bailitzaiokoe axola, jaka shaggy jacket bat izatea, jatorrizko alemanean itsuan aukeratuko baitzuen edo, besterik gabe, perpausaren erritmoari zegokiolako. Jaka motak pertsonaia definitzen lagunduko balu bakarrik izango litzateke beharrezkoa, espainieraz panazko batek bezala adibidez, jaka sozialistaren edo ezformalaren baliokide bat aurkitzea. Belarrian min emango ez lukeen zerbait nolana ere. Julia ados legoke originaletan egiten duen aldaketarik txikienak funtsa traizionatzen duela esaten diolako ez balitz. Idazlearen eta itzultzailearen arteko bitarte gaindiezina (Saizarbitoria, 2012, 162. or.).

Itzultzailearen lana igarri behar ez delako ideia nagusi da Juliarengan, itzultzailearen eskua nabari denetan itzulpenean zerbait oker dagoelakoan eta bitartekariak jatorrizkoari traizio egin diolakoan. Hala, Martin aldaketa txiki baten alde dagoen artean, Juliak gisa horretan originala traizionatzen dela adierazten du.

Baina, bai Martinen jarrera, bai Juliarena, konplexuak eta, batzuetan, kontraesan-korrek direla esan daiteke, hots, ez dutela berdin jokatzene guztietan. Adibide baterako, Martinen kasuan, aipagarria da aurreko aipuan ikusi bezala, inoren testuetan aldaketaren bat txertatzeko arazorik ez duen arren, itzultzaileak bere testuetarako egindako proposamenak ez dituela gogo onez hartzen, nahiz eta adierazten duen idazle izateak eskumena ematen diola bere testuak eraldatzeko:

Askotan egin ohi den galderari buruz berriz, alegia, zergatik ez dituen Martinek berak bere lanak itzultzen, bi ipuinekin izandako esperientziaz baliatzen da ezinezkotzat jotzeko. Lana nekea eta aspergarria egiten zitzaion, egile izateak baimentzen zuenez etengabe traizionatzen zuen testua, eta zailtasunak aldentzearen, edo hobetu asmoz, hainbeste urruntzen zen jatorrizkotik non une batetik bestera birsortze bat bilakatzene baitzen emaitza, lehenengo bertsioa baino hobea agian, inondik inora ez jatorrizkoa. Ezinezkoa zitzaion, oroz gain, sortzeko ahalmen handiagoe eskatzen zuten lanak zeuzkalako zain. Hori esan zion proposamena onartzeko konbentzitu zuenean. Idazlea da, kaka-idazlea ziur asko, baina idazlea azken finean, eta ez itzultzailea (Saizarbitoria, 2012, 112. or.).

Esan bezala, Martinek era bateko jokamoldea darabil inoren itzulpenekin, eta bes-telakoe Juliarekin. Juliaren ustez, itzultzailearen egitekoa betetzen ez dabilelako mesfidatzen da Martin, eta batzuetan mahai ondora inguratzen zaio alferkerian harrapatuko duelakoan (Saizarbitoria, 2012, 93. or.); zertan dabilen ere sarri galdetzen dio. Egiazki, badago Julia bere itzulpen-lanetik desbideratzen duen kezkarik; izan ere, militantzia politikoari eta gatazkari lotutako zalantza eta erruduntasun sentimendua agertzen du maiz. Barne-gatazka horrek darama, esaterako, liburuetan aipuak obsesiboki bilatzera, inor erail izanak ala ez izanak sorrarazitako ezinegonen inguruan:

Nahiz pasarte hori aurkitu ez, Julia konbentzituta dago Frischek liburu batean azaltzen duela gutxieneko, eta ziur asko batean baino gehiagotan, aleman hura akabatu ez izanaren errudun sentimendua.

Beraz, Martin ageri delarik, *Journal 1966-1971*-ren orriak amorru batean iraultzen aurkitu du, bilaketan obsesionatuta, testua antzemateko premia estua menderatu ezinik, eta zertan ari den galdetu dionean, iruditu baitzaio *Bihotzean min dut* itzultzen ez egotea aurpegiartzeko egin duela, ez dela ezertan ari erantzun dio begien gainetik ile bakan ahul eta mirakuluz tentea, elektrizatua dirudienari begira, badakielako ez dezakeela horrelakorik jasan, eta konturatu den orduko bi eskuak joan zaizkio burura gizajoari, ilea atzera tiratuz etzateko ahaleginean (Saizarbitoria, 2012, 381. or.).

Badirudi, hortaz, itzultzaileaz fio ez den idazlea dela Martin: itzultzaileak proposatzen dituen aldaketa, txertatze zein zuzenketekin mesfidati agertzen da eta zakar erantzuten dio Juliari, esaterako, itzulpeneko istorioan aldaketa bat gehitzea proposatzen dionean (Saizarbitoria, 2012, 230-231. or.). Kontraesankortasuna ageri du Martinek, halaber, bere testuen itzulpenekiko sentimenduetan; izan ere, arrandiaz oparitzen dituen arren (Saizarbitoria, 2012, 498. or.), itzulpenak dakarrenaren beldur da, itzulpenak direlako beste eremu batzuetarako sarbide, eta hori dela eta, dudatsu egoten da idazlea, eremu horietako harrera zein izango ote den (Saizarbitoria, 2012, 110. or.).

Juliari dagokionez, irekiago ageri da kultur arteko literatur transferentzian. Juliak sarri oparitzen dizkie euskarara itzultako liburuak ingurukoei eta euskarazko itzulpenak zabaltzeko joera du (Saizarbitoria, 2012, 124. or.). Halaber, joera du aurreiritziak alde batera utzita literatur lanak gozarazteko nahia sustatzeko, eta uste du polemistek erasotzen dituzten ideiak aztertzeak laguntzen duela ideia horiek hobeto ulertzen (Saizarbitoria, 2012, 22. or.). Ez hori bakarrik, Martini ezezagun zaizkion emakumezko idazleak ere deskubriarazi dizkio (Saizarbitoria, 2012, 109. or.). Ildo horretan, itzultzailea zubigile da, elkaturik egon ez diren munduen arteko bitartekari; atea eta bideak irekitzea da bere asmoa, nolabait. Bada, hain zuzen ere, parte hartzen duten itzultzaileekin, itzultzaile-eragileekin, ikusgai dauden itzultzaileekin lotutako ideiak dira literatur lan jakinen zabalkundea egitea, ohiko kanonizazioak zalantzan jarrita atzerriko lan berriak ezagutzera ematea, lanen berrirakurketak egitea...

Ildo beretik, Juliak, lehen ikusi bezala, esku-hartzeak proposatzen ditu testuinguruak kokatzeko eta halaxe egiten du indarkeria gai nagusitzat duen *Bihotzean min dut* bildumako itzulpen-prozesuan, zehazki, ipuin bateko hizkuntza-erabileraren inguruko hitzaurre bat proposatzen duenean: «Juliaren iritzia da ongi letorkiokeela narrazioa bere testuinguru historikoan kokatuko lukeen sarreraren bat» (Saizarbitoria, 2012, 227. or.). Indarkeriari buruz ari den pasartearen transmisioak sorrarazten dio Juliari azalpenak txertatu beharra, kasu horretan gatazkaren itzulpenean esku hartu eta testua dagokion testuinguru historiko-kulturalean kokatzeko. Halako esku-hartzeak ohiko izaten dira gatazka-gaien edo gatazka-testuinguruetakiko itzulpenean, eta Bakerrek «Ohar paratesualen bidezko birposizionatzea» deritzon teknikari ekiten dio Juliak Martinen testua kokatzeko, eta horrek bide ematen dio itzultzaileari testuarekiko eta testuko ideiekiko posizioa agertzeko. Bakerren hitzetan esanik:

In translation and interpreting, participants can be repositioned in relation to each other and to the reader or hearer through the linguistic management of time, space, deixis, dialect, register, use of epithets, and various means of self- and other identification. Cumulative, often very subtle choices in the expression of any of these parameters allow the translator or interpreter to reconfigure the relationship between here and there, now and then, them and us, reader and narrator, reader and translator, hearer and interpreter. Whether in the form of paratextual commentary or shifts in the expression of any of these parameters within the text itself, translators and interpreters can actively reframe the immediate narrative as well as the larger narratives in which it is embedded by careful realignment of participants in time and social/political space (Baker, 2006, 132. or.).

Beste pasarte honetan ere obraren testuinguru historikoa kokatzeko oharrak gehitu beharraz ari da Julia, poemaren atzeko historia erreala agertu beharraz:

Ezinbestekoa gertatzen da, beraz Juliak amerikar gazteari *Xabiertxoren eriotza*-ren argumentuari buruz zerbait esatea, itzulpenean ahalik eta hitz gutxienetan orri oinean egin beharko duen bezala, gaztelerazko irakurleak jakin dezan Lizardik atea irekiarazten diola kanturik entzun nahi ez duen emazteari, neska-mutikoek sehaska inguruan gabon kantak kanta ditzaten, hauei nola esaten dien ez kezkatzeko umeagatik, ez dela esnatuko eta sakon lokartuta dagoenez, eta neska amerikarrak begiak lausotuta «it's so moving» esan baitu (Saizarbitoria, 2012, 229. or.).

Joera horretan, itzultzaile ikusezinaren irudia alde batera lagata, esku hartu eta bere ahotsa ikusarazteko hautua egiten du Juliak, zehazki, testuinguru historikoak kokatzen laguntzeko proposamenak eginez bitartekaritza lana egiteko. Hala, idazlearengandiko mendekotasuna hautsi eta itzultzailearen ahotsari ateratzen utzi nahi dio.

Bada, mendekotasuna hautsi beharra loturik dago Martinentzat itzultzaile-lanetan ari dela eleberrian zehar Juliak etengabe gogoan duen kezketako batekin: Martinen ipuin-liburua itzultzen bukatuta lehengo lanera bueltatuko ote den zalantza egiten du; izan ere, Juliak aske izan nahi luke, lotura afektiboak eten, Martingandik, tradizio-tik, mendekotasunetik... askatu; baina horretarako bidea alderdi ekonomikoa bermatuta izatea da, eta administrazio-itzultzaile legez aritzea. Lana bera ez da hain aberasgarria, ordea (Saizarbitoria, 2012, 114. or.). Juliaren benetako ametsa, ostera, berak hautatutako lanak itzultzea eta idazle jardutea da. Honela ageri da ideia Juliaren eta Harriren arteko elkarriketa batean:

Diputaziora itzultzeko asmorik daukan galdetu dio. Kasik ziur dago baietz baina ez dakiela erantzun dio ez esatearren Martingandik banandu nahi duela, profesionalki besterik ez balitz ere.

– Gustatuko litzaidake lanik egin behar ez izatea.

– Zer egingo zenuke loteria tokatuko balitzain?

Inoiz ez dio bere buruari galdera arrunt hori egin. [...] Egia da ordea azken boladan fantasian aritu ohi dela: Gaztetxoentzako Euskal Herriko historia bat idaztearekin, Gombrihen *Munduaren Historia Laburra*-ren estiloan. Frischen *Fragebogen*, Galdetegiak

euskaratzea, Verhör, Galdeketak alegia eta *Montauk* akaso. «Bihotzean» itzuli bitartean indarkeriarekiko jarreraz zirriborratuz joan den notak ordenatzea eta haietan sakontzea. Eta idazteari buruz idaztea, euskaraz idazteari buruz. Kubara bidaiatzea. Harriri harrigarria gertatuko litzaioke noski idazle pretentsioak dituela entzutea. Idazlea Martin da. Ziur dago asmo ezkutuon berri emango balio Martini kontatuko liokeela, eta ondorioz honen adarra jasan beharko lukeela (Saizarbitoria, 2012, 444-445. or.).

Antzeko azalpenak ematen dizkio Juliak Kepari eleberriaren bukaera aldean; itzultea dela irakurtzeko modurik onena adierazten dio, bai eta bera ez dela itzulzaile profesionala ere, eta:

Ez daki zergatik aitortzen dion Kepari orduan egin ez zuena: hileroko gutxieneko bat izatea nahi lukeela, zenbateko apala, alokairu bat ordaintzeko adina eta ezer gutxi gehiago, larritasunik gabe –gaztetxo baten ama da– gustuko dituen gauzetan aritu ahal izateko. Itzulpen literarioan astitsu saiatzearen, esaterako. Baita idazten ere. Euskal Herriaren historia bat idaztea dauka pentsatua Gombrichen *Munduaren historia laburra*-ren tankeran, gauetan Zigorri kontatu izan dizkionak baliatuz. Irakurtzeko denbora gehiago izatea. Piano eskolak hartzeko. Bere egitasmoak kontatu dizkio beraz, bere desioak hobeto esan, beste inorekin erdizkatu ez dituenak (Saizarbitoria, 2012, 715. or.).

Norberak hautatutako itzulgaiei ekitea eta idaztea ments du, hortaz, Juliak. Bada, ordurako, dagoeneko erabakirik dauka: «ez du haren lanik inoiz gehiago itzuliko» (Saizarbitoria, 2012, 438. or.); eta gura dituen lanak itzultzeko hautua egiten du: *Montauk* eta *Fragebogen* (Saizarbitoria, 2012, 335, 629. or.). Harrigarria da, halaber, errazago egiten zaiola beste lan batzuk itzultzea, Martinen idatziak itzultzea baino: «Zergatik gertatzen ote zaion errazago *Montauk* euskaratzea *Naufraگوen istorioak* itzultzea baino, bere buruari» (Saizarbitoria, 2012, 585. or.). Horren arrazoia idazleak itzulpenaren xede-hizkuntza ezagututa itzulpenarekin eroso ez sentitzeko aukera izan liteke; agian, «Juliak Martin dezepzionatzeko beldurra izaten zuen Martinen testuak ahosgora irakurtzean» (Saizarbitoria, 2012, 637. or.). Eta arrazoia eleberriaren gaia ere izan daiteke, euskal gatazka testuinguratu eta eremutik kanpoko jendeari modurik onenean azaldu beharra, alegia. Ziurgabetasun horrek, halaber, itzulpen-lan nekoso bukaezinari pertzepzio negatiboa areagotu dezake. Hain zuzen ere, itzulpena ezin bukatuzko lan neketsu legez agertzen da eleberriari eta sarri errepikatzen den ideia da itzulpenari aurreratu ezina: «*Bihotzean min dut*-en itzulpenari ez du aurrera egiten, eta horretan Martinek ez du errurik» (Saizarbitoria, 2012, 159 or.); «Denbora gehiegi ari zaio hartzen “Bihotzean” itzultzeak eta hori, lanaren zailtasun intrintsekoen landa, baten bat bai baitu, ia perpaus bakoitzean, bere kasa, espekulazio alferrikakoetan galtzeko joera daukalako» (Saizarbitoria, 2012, 215. or.); «*Bihotzean min dut*-en itzulpenari interesatzen denez, ez duela aurreratzen aitortu dio ezinbestean» (Saizarbitoria, 2012, 284 or.). Ildo horretatik ari da Colbert:

Y, en última instancia, el recuento a través de la traducción llegará a ser una tarea si no imposible, incompleta, fracasada. Al abarcar la cuestión del terrorismo, y cómo los vascos deben actuar ante él, la traducción de Julia se encuentra con una barrera infranqueable, una materia que no se puede contar como quiere ella (Colbert, 2016, 351. or.).

Bada, Colberten ustez, gainera, itzulpena da bidea eleberrian Euskal Herriko harreman intrakulturalak esploratzeko; halaber, euskara eta gaztelania eleberrian erreprezentatuz «Saizarbitoria explora el complejo bagaje cultural que conlleva cada idioma y la influencia de un idioma u otro en la percepción de la realidad vasca» (2016, 349. or.).

Ikusi dugunez, beraz, Euskal Herria kanpora, kanpotarrei, Lynni zein hurrengo belaunaldi, Zigor semeari, azaldu beharrak eragindako itzulpen-arazoak dira aipagai eleberrian, eta erreprezentazioaren mugak nabarmentzen dira, itzulezintasuna izanik etengabe errepikatzen den auzietako bat. Itzultzaile ez profesionala idazlearengandik askatu guran ageri da, bere ahotsa errepremituta eta duen erantzukizunaren jakitun: zalantzan dago traiziogiletzat hartuko ote duten itzulpenean esku-hartzen baldin badu, baina, bestelakoa da bere ametsa, kontestu historikoaren ulermenerako esku-hartzea, eta hori lortzen du, lortzen duenez, ez hainbeste Martinen testuari loturik, baina bai, ordea, «bere historia» semeari kontatzeko; izan ere, kasu horretan Juliak, memoriaren transmisioan jasotako ondare edo herentziatik askatzea lortzen du, datozen lerrootan ikusiko dugunez.

Transmisioarekin lotutako leialtasunari buruzko gogoetak bereziki interesgarriak dira Juliak Gerra Zibilaz eta euskal gatazkaz hausnartzen duenean; zer helarazi beharko liokeen Zigorri jasotako herentzia abertzaletik eta zer ez. Ikusiko dugunez, ondare horrekin leial izatea edo ez izatea gakoetako bat izango da hemen ere, belaunaldi arteko bitartekaritzari dagokionez.

Kontuan izan behar da bi emakume/ama direla, familia berean, herentzia abertzale horren belaunaldi arteko transmisioan esku-hartzen dutenak: Julia eta bere ama, Zigorren amona, alegia. Bien arteko talkak transmisio horren inguruko kezka eta zalantza adierazten du maiz, Juliaren ikuspegitik, zehar estiloan edo zehar estilo librean testuratzten diren gogoeten bidez (Arroita, 2015). Amonak Zigorri kontatutakoak zalantzan jartzen ditu Juliak, edota ñabardurak egiten. Esate baterako, Gerra Zibilaz aritzean, gudariak goستن ditu amonak, mutil bikainak zirela esaten dio bilobari, eta bidezkoa izan zela errenditzea, Euskadin gerra galdua zegoelako. Gernikako bonbardaketari buruzko historia ikaragarriak ere kontatzen dizkio; Juliak zalantza egiten du, ordea, amonaren lekukotzaren aurrean:

Bonbardaketaren lekuko izan zen, baina kontatzen duena ez da ezer Juliak zineman ikusi dituen irudi suntsitzaileen aldean. Mutiko horrek Hiroshima gaineko perretxiko erraldoia ikusi du, Vietnamgo neska larrutua, objektiboki Gerniakoa txiki utzi duten tragediak. Gelan jantzia aldatzen duen bitartean amarena entzun du, kasik ahapeka orain. Badaki halako batean, bonbardaketatik ihesean korrika umea besoetan manta batean bildua zeramala derrepente burua galdu zaiola konturatzen den emakumearena kontatuko duela. Zalantza egiten du halakorik ikusi ote duen, baina hain dauka barneratua, bizitua bezala sentitzen du irudi hori. Ikaragarria. Mutilak isilik dirau; amonaren ahotsak testigutzaren izua transmititzen du, zinemako efektu berezirik onenak ezingo luke harekin lehiatu (Saizarbitoria, 2012, 185. or.).



Zalantza horien muinean, amonak Zigorri transmititu nahi dizkion irudi idealizatuak zehaztu nahia dago; ñabardurak egiteko beharra. Aldekoak (2018, 32. or.) adierazten duen bezala, Juliak «modu atsegin eta pedagogiko batean» deseraiki nahi ditu abertzaletasunaren mitoak. Eta, desmitifikazioaz haratago, batez ere, semeari azaldu nahi dio «ez duela bere burua ez benetako ez ustezko arbasoenganako leialtasunez behartua ikusi behar» (Saizarbitoria, 2012, 296. or.). José Miguel Ullanen bertso batzuek adierazten dute Zigorri azaldu nahi liokeena: «diles/que no hay más raza que el azar que no hay más patria que el dolor» (Saizarbitoria, 2012, 295. or.). Aitortzen du, hala ere, gerrako gudarien duintasunarengatik sentitzen duen harrotasuna, hori bai, transmititu nahi liokeela semeari:

Semeari esan nahi liokeena: gerraurrean, gerran eta gerra ostean, bide bazterretan hildakoen gorpuk desobiratzeko eskubideaz hitz egiten den honetan, alderdi guztietakoek, gorri nahiz urdin, eskuineko zein ezkerreko, denek dauzkatela, zein bere neurrian, basakeriak ezkutatzeo premia, baina, idealizazioak idealizazio, gudariak ez zutela lotsatzeko motiborik, eta harro sentitzen dela horregatik. Motiborik gabeko harrotasuna, seme-alabak ez baitira gurasoek egindakoaren errudun ez meritudun. Baina harrotasun hori bai, transmititu nahi dio semeari, eta lehenagoko abertzaleek utzitako ondare hori, hainbeste estimatzen duen izen ona galdu izanak, orain, gaztetan ez bezala, eragiten dion pena (Saizarbitoria, 2012, 634. or.).

Amonarentzat, gerra eta errepresio frankista estuki lotuta daude indarkeriaren iraupenarekin. Aurrez aurre agertzen dira, beraz, Juliarenean gerraren eta frankismoaren memoria eta ETaren indarkeriari buruzko eztabaida. Amonari erantzun ohi dio Juliak, Zigorren aurrean, ez diezazkion berari okerrekoak iruditzen zaizkion ideiak transmititu. Izan ere, biktimek pena ematen diotela eta indarkeria gaitzesten duela dioen arren, errukia adierazten du amonak lehegailuak zituztelako atxilotu dituzten gazte batzueganako, eta agudio gisa, jasandako errepresioa aipatzen du:

Mututasun etsi batean babestu ohi zen, bera, Zigorrentzat oroz gain, eskubide estatuen printzipioak errespetatu beharraz eta indarkeriak sortzen zuen sufrimendu alferrikakoaz mintzo zen bitartean, horrelakoei «Kontua da guri beti sufritzea suertatzen zaigula» edo gisako zerbait aurkatzeko ahapeka. Halatsu izaten zen beti, eta Juliak eragozten ez bazion irain eta bidegabekerien arrosario luzean hasiko zen, Gernikako bonbardaketa gudarien gain bota nahi izan zutena, osabaren fusilatzea, ilobak preso daramatzen hogeita bost urteak, bere enborreko belaunaldi askoren lan latza, apenas burua miseriatik ateratzeko balio izan diena, senarrak, Juliaren aitak, euskaraz hitz egiteagatik ordaindu behar izan zuen hamar mila pezetako isuna. Hura guztia zertara zetorren, zer justifikatu nahi zuen oihukatuz isilarazten zuen arte eta, orduan, isildu aitzin, martiri begiak jarriz eta tristezia sakona adierazten zuen ahotsaz: Gezurrik esan al dinat? (Saizarbitoria, 2012, 129-130. or.).

Zigorri bere aitaz, hildako etakideaz hitz egitean ere, gero eta zailago zaio Juliari amonak eta izebak transmititzen dioten irudi idealizatuak –heroi edo martiriarena– gezurtatu gabe aritzea (Saizarbitoria, 2012, 131. or.). «Ez du nahi aitak –haren bizitzak zein heriotzak– genetikoki determinatzen duena baino gehiago baldintza dezan»

(Saizarbitoria, 2012, 132. or.). Gehien kezkatzen duena, ordea, aita semearentzako utzitako zorroa da; hamabost urte betetzean eman behar dion hil ondoko gutuna. Bel-durra ematen dio zenbateraino baldintza lezaketen aitaren hitzek semea, zenbaterainoko zama izan daitezkeen, berak uste duen bezala, borroka eta sakrifizioa inposatzen baldin badizkiote Zigorri:

Jakinik da noski, aita-semeek harremana izateko eskubidea ez duela heriotzak ahitzen, aita eskubidea daukala bere ondarea semeari emateko eta semeak jasotzekoa, eta beren arteko korrespondentiaren intimitatea errespetatua izatekoa dutela biek. Berari berriz, eskubide horiek errespetatzea dagokio –semearena da heriotzak sakratu bihurtu duen aitaren hitza– baina aldi berean mutilaren ongizatea eta bere interes gogokoa zaintzea –aitaren hitzetik, kondena bat izan daitekeen neurrian, babestea– bere betebeharra eta bere eskubidea dira hala berean (Saizarbitoria, 2012, 133-134. or.).

Dilema ikaragarria da; ez dizkio aitarekiko harremana eta haren iragana ukatu nahi semeari, baina, aldi berean, ez du nahi aitaren herentziak semea indarkeriara bultzatzerik eta bere etorkizuna baldintzatzerik. Azkenean, aitaren zorroa haustea erabakiko du Juliak. Legarretak (2018, 70. or.) nabarmentzen duenez, aberri-ama umejalearen irudia baztertzen du Juliak, semearen identitatea eta askatasuna babeste aldera.

Ikusten dugunez, beraz, belaunaldi arteko bitartekaritza horretan, ama gisa rol transmisore/babesle hori betetzen duenean ere, bere ahotsetik eta bere kontzientziatik irazita helaraziko dizkio Juliak semeari iraganeko kontuak eta, zehazkiago, bere familiaren herentzia abertzalea. Betiere ikuspegi kritiko batetik, ondare horren elementu batzuk iraunaraztea erabakiko du (gerrako gudarien duintasuna eta horrek sorrarazten dion harrotasuna, esaterako); beste alderdi batzuk, berriz, matizatu edo baztertu egingo ditu (aita etakidearen herentzia, bereziki, baina baita gerrari buruzko ikuspegi edo diskurtso idealizatuak ere, oro har), semea babestu nahian.

## 5. ONDORIOAK

Arestian eztabaidatutakoetatik ondoriozta dezakegunez, ama bitartekariaren iruditegia aktibatzen da *Martutenen* ere. Baina, memoriaren transmisioari buruzko barne-gatazkan zalantziati, ikuspegi kritiko batetik esku-hartzea erabakitzen duen ama itzultzaileak ezabatzeak eta birkokatzeak dakartza transmisio-bide gisa. Julia ama itzultzailea, hortaz, herentzia abertzalearen transmisorea da, baina har zitzakeen bideen subjektibotasuna onartuta, eta nagusitu izan diren bideen inguruko gogoeta egin ostean, transmisio jakin bat egitea erabakitzen du, modu kontzientean. Abertzaletasuna bizitzeko modu gatazkatsua agerikoa da, bai eta Juliaren agentzia edo subjektibotasun aktiboa ere. Halaber, esan dezakegu, aurreko belaunaldiekiko ikuspegiaren aldean, Juliak neurri batean etena edo problematizazioa irudikatzen dituela.

Hizkuntzen bitartekari gisa aztertuta, bide beretik, Julia bere ahotsaren bila dabilen pertsonaia dela ondoriozta genezake. Leial izan beharrak sortzen dizkion kezak eta zalantzak gogoetagai dira nobelan, behin eta berriz. Itzultzaile den aldetik, esan genezake

3. atalean azaldutako itzultzaile desleialaren irudia aldatuta ageri dela *Martutenen*, eta, izatekotan, idazlea bezain desleiala dela itzultzailea, eta hala onartzen duela berak. Esku hartzen duen itzultzailea da Julia, eta idazleak bezalaxe, lizentziak hartu nahi lituzke. Nolabait, bere ahotsa agerrarazten du testuinguru historikoa azaltzeko. Hala, esan genezake Martinen testuak itzultzean gertatu bezalaxe gertatzen zaiola semeari gerraz eta gatazkaz transmititu nahi dion memoria komunikatiboarekin.

Bada, gatazkaren narratibetan itzultzaileak hartzen dituen estrategiak (ikus Baker, 2016) memoriaren transmisiora ekarrita, semearekin egiten duen bitartekaritzan, bereganatze selektiboa (Baker, 2016, 114. or.) egiten du Juliak, ezabatzeak egiten dituen aldetik: hautatu egiten du zer kontatu eta zer ez; eta kontatzen duen hori nola matizatu. Beraz, birkokatze-estrategia ere badarabil; hain zuzen ere, Martinen testuekin, darabilen berbera. Zehazki, ohar paratestualen bidezko birposizionatzea egiten du hitzaurreak eta oin-oharrak proposatzen dituen gero Martinen ipuinetako gatazka-egoera historikoak kokatzeko. Estrategia horien bidez esku hartzen duen itzultzeak ez du bitartekaritza-ekintza neutro edo pasiboa egiten duenik uste, onartzen du erantzukizuna duela eta kokatu egiten da, modu kontzientean. Izan ere, Bakerren hitzak gure eginez (gatazkaren itzulpenaren inguruan ari da), itzultzaileek, beste edozein gizarte-eragilek bezala, gizartearekikoak sortzen, negoziatzen zein aurka egiten duten testuak itzulpen parte hartzen dute, eta itzulpen horietan darabiltzaten estrategiek lagundu egiten diete autorearen narratibatik disoziatzen edo harekiko enpatia agertzen (Baker, 2006, 105. or.).

Juliari idazlearekiko menpekotasuna eta herentzia abertzalea pisuegi zaizkio eta azkeneko, harreman horietatik askatzea, disoziatzea, erabakitzen du: batetik, Martinen itzulpena bukatzean itzulpengintza administratiboa alde batera utzi, eta itzulpengintza literarioan bere bidea egin nahiko du, eta, areago, bere ahotsetik idatzi, gaztetxoentzako Euskal Herriko historia bat, esaterako, Zigorri transmititu nahiko liokeena kontatu ahal izateko. Hala, transmisore izanik ere, askatu egiten da Julia transmisore leial eta ikusezinaren roletik, hots, mezuak inoren ahotsetik kontatu beharretik.

Beraz, itzultzaile-bitartekariaren egitekoa funtsezkoa da memoriaren transmisioan ere. Ildo horretan, emakume-amaren rol protagonista nabarmentzen da hemen ere, euskal abertzaletasuna genero ikuspegitik aztertu duten historia eta antropologia lanek, 2. atalean aipatu ditugunek, azaldu duten bezala. *Martutenen*, rol protagonista du Juliak, eta bere esku dago iraganari buruzko diskurtso abertzalea, amonak bilobari helarazi nahi diona, zalantzan jarri eta ñabardurak egitea ala ez. Juliaren esku dago, halaber, aita etakidearen herentzia semeari transmititu ala ez.

Arestian azaldu dugu emakumeek aberriaren iraupena, abertzaletasunaren belaunaldiz belaunaldiko transmisioa bermatuko luketela gerra garaian ere semeak aberriaren aldeko sakrifizioan emanda (Aresti, 2014, 302-305. or.), bada, Juliak abertzaletasunaren transmisioa egin, egiten du, baina herentzia horretako zenbait pasarte isilduta. Isiltzea ere transmisio-modu bat da, lehentxeago aipatu bezala, Bakerrek (2006) «bereganatze selektibo» esaten diona. Ikusi dugunez, herentzia abertzalearen alderdi batzuk irauraraztea eta beste batzuk matizatzea edo baztertzea erabakitzen du Juliak.

Fikziozko itzultzaileen iruditegian ageri izaten den erru-sentimenduari aurre eginda lortzen du hori Juliak, fideltasunaren auzia gainditu eta idazlea bezain desleial izanik bera ere, bere historia kontatzeko testuan aldaketak egiteko lizentziak hartuta, historia bere ahotsetik kontatuta. Transmisioaren erantzule da emakumea gatazkaren memorian, baina, honako honetan, bere ahotsa sortzeko bidea egiten du Juliak *Martutenen*.

## 6. ERREFERENTZIAK

- Aldekoa, I. (2013). *Martutene: la escritura o la vida*. *Ínsula*, 797, 21-23.
- Aldekoa, I. (2018). Ramon Saizarbitoria eta Joxe Azurmendirekin solasean. *Egan: Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko Boletinarene Euskarazko Gehigarria*, 3-4, 29-48.
- Alvarez-Uria, A. (2012). Lau katu dira? Gorputza eta desira euskal emakume idazle garaikideen lanetako ahots subalternoetan eta bitarteko espazio identitarioetan. In A. Alvarez-Uria & G. Lasarte (arg.), *Gorputza eta generoa euskal kulturaren eta literaturaren* (91-108. or.). Bilbo: UPV/EHU.
- Aresti, N. (2014). De heroínas viriles a madres de la patria. Las mujeres y el nacionalismo vasco (1893-1937). *Historia y Política*, 31, 281-308.
- Arroita, I. (2015). *Ramon Saizarbitoriaren nobelagintza memoria ikasketen ikuspegitik* (doktore tesia). Gasteiz, UPV/EHU.
- Assmann, J. (1995). Collective memory and cultural identity. *New German Critique*, 65, 125-133. DOI: <https://doi.org/10.2307/488538>
- Baker, M. (2006). *Translation and conflict. A narrative account*. London and New York: Routledge, Taylor & Francis e-Library. <https://epdf.tips/download/translation-and-conflict-a-narrative-account.html> helbidetik eskuratua.
- Blickle, P. (2002). *Heimat. A critical theory of the German idea of homeland*. Rochester & NY: Camden House.
- Colbert Goikoa, D. (2016). Traducción y auto-exégesis en *Martutene* de Ramon Saizarbitoria. *Pasavento: Revista de Estudios Hispánicos*, 4(2), 347-363.
- Del Valle, T. (1999). El género en la construcción de la identidad nacionalista. *Foro Hispánico*, 16, 37-44.
- Erl, A. (2011). *Memory in culture*. Basingstoke: Palgrave Macmillan.
- Gabilondo, J. (2013). *New York-Martutene: Euskal postnazionalismoaren utopiaz eta globalizazio neoliberalaren krisiaz (edo nola desiratuko dugu orain?)*. Bilbo: UPV/EHU.
- Ibarluzea, M. (2017). *Itzulpenegintzaren errepresentazioak euskal literatura garaikidean: eremuaren autonomizazioa, literatur historiografiak eta itzultzaileak fikzioan* (doktore tesia). Gasteiz, UPV/EHU.
- Kaindl, K. (2014). Going Fictional! Translators and interpreters in literature and film. In K. Kaindl & K. Spitzl (arg.), *Transfiction. Research into the realities of translation fiction* (1-26. or.). Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins. DOI: <https://doi.org/10.1075/btl.110.01kai>
- Kortazar, J. (2012). Bost pertsonaia, hiru liburu, sinbolo bi, egilea eta gizartea. *El Correo*, 2012/04/28. Kritiken hemeroteca, <http://kritikak.armiarma.com/?p=5462> helbidetik eskuratua.

- Legarreta, I. (2008). Euskal nazionalismoa Ramon Saizarbitoriaren *Martutenen*. Iñaki Abaitua eta Juliaren gogo-bihotzetan haztakatzen. *Egan: Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Boletinaren Euskarazko Gehigarria*, 3-4, 49-75.
- Mihalache, I. (2005). Le jeu de scène: traductions et traducteurs à travers les cultures et les genres littéraires. In D. Delabastita & R. Grutman (arg.), *Fictionalising translation and multilingualism* (139-154. or.). Antwerpen: Hogeschool Antwerpen Hoger Instituut voor Vertalers en Tolken.
- Olaziregi, M. J. (2012). *Basque literary history*. Reno: Center for Basque Studies-University of Nevada.
- Otaegi, L. & Otsagabia, G. (2019). *Beste gerrako kronikak, bikote harremanak eta indarkeria Ramon Saizarbitoriaren eleberrigintzan*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- Pagola, I. (2005). *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri* (Iker, 18). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Resina, J. R. (2011). Denegación y ética de la memoria. In M. J. Olaziregi (arg.), *Literaturas ibéricas y memoria histórica* (RIEV, Cuadernos, 8) (18-26. or.). Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Retolaza, I. & Serrano, A. (2012). Koaderno gorria, aitortza baten bidaia. *Euskera*, 57 (3), 705-733.
- Saizarbitoria, R. (2012). *Martutene*. Donostia: Erein.
- Saizarbitoria, R. (2015). Ramon Saizarbitoria: itzulpen-ohiturei buruzko galdetegiaren erantzunak. Argitaragabea.
- Simenoni, D. (2004). Le traducteur, personnage de fiction. *Spirale: arts, letters, sciences humaines*, 197, 24-25.
- Siouda, A. (2012). La traduction comme substitute d'amour, thérapie et art de la relation. *Traduire*, 226, 21-38. DOI: <https://doi.org/10.4000/traduire.138>
- Zapiain, M. (2015). *Saizarbitoria eta iragana*. Zarautz: Susa.